



Amilotx mottoduna (*Parus cristatus*)
(Irudigilea: Conrado Tejado Lanseros)

DIBULGAZIO-EKINTZEN EGITARUA

2011



OTSAILA

Belartegi digitala

25, ostirala



Belartegi digitala diseinatuta dago eta landareak sailkatzeko eta belartegia osatze aldera argazkiak eskuratzeko lau landa-irteera egingo ditugu urtean zehar. Lehenengo aldiz parte hartu nahi dutenak ongi etorriak izango dira. Lehen bilera honetan atazak banatuko dira eta irteerak antolatuko.

APIRILA

Bisitaldi entomologikoa Fontetxako aretzara

2, larunbata



Areatzan, udaberriko hasieran, harea azpiko beren habietatik ateratzen dira erle bakartiak: han pasatu dute udaren zati bat, udazkena eta negua, gure oinazpian izkutatutik. Lehendabizi jaiotzen dira arrak; ehundaka aleko multzoak patruilan dabilta etengabe eme bila. Hauek apur bat beranduago jaiotzen dira, bikoteak egiten dira eta gero habiak eraikitzen hasten dira, harea azpian. Areatza muintoxoz betetzen da; horiek, dena den, denbora aurrera ahala eta euriari esker desagertu egingo dira. Orduan basamortua dela emango du, baina isilpeko miraria izkutan prestatzen ari da, beste intsektu askok egiten duten moduan, espektakulu miresgarria, bere erpinean harrapatzen saiatuko garena.

Belartegi digitala I

17, igandea



Lehen irteera: bisitatzeko lekua lehen bileran finkatuko da. Edozein modutan ere, Arabako eta inguruko landaredian ipiniko dugu aurten arreta.

MAIATZA

Aretxabaletan habi-kutxak behatzea

21, larunbata



Ohi bezala, “La Dehesa”ko erkameztira hurbilduko gara, Iñaki Zorrakinen oroimenez eta ohorez. Bertan txori intsektujaleek habia egitea errazteko asmoz zintzilikatutako habi-kutxak behatuko ditugu, nork zein-zenbat erabili dituen ikusteko asmoz.

Txori-kantuak identifikatzeko ikastaroa

28, larunbata

Araiatik Aratz mendira igoko gara, bertan dauden txori-moten kantuak eta soinuak ezagutzeko asmoz.

Belartegi digitala II

29, igandea

Bigarren irteera: bisitatzeko lekua lehen bileran finkatuko da. Edozein modutan ere, Arabako eta inguruko landaredian ipiniko dugu aurten arreta.

EKAINA

Arabako parke naturalak ezagutzen: Urkiolako P. N.

4, larunbata



Arabako parke naturalak ezagutzeko ekitaldi-sortari bukaera ematen dion azken txangoa. Oraingoan Urkiolako P. N.era hurbilduko gara, Euskal Autonomia Erkidegoan era honetako lehenengo gunea. Bere zati arabarrearnean barneratuko gara, Aramaiotik abiatuz, naturgune honetan gutxien bisitatzeko den ingurunean barrena.

Tximeletak, bioadierazle. Armentiako basoan zehar irteera praktikoa

5, igandea



Tximeletak bioadierazle gisa erabil daitezke. Batez ere, klima eta landaretzarekiko duten sentikortasuna dela-eta. Helburu honekin, 2008an Erropalazoren jarraipena egiteko programa bat abian jarri zen EAEn. Irteera honetan Armentiako basoaren ekialdetik doan transektu batean proiektu honen nondik norakoak eta metodologia ezagutuko ditugu eta, bide batez, bertako tximeletarik arruntenak ere bai.



Ur-igel arrunta (*Pelophylax perezi*) / Irudigilea: Conrado Tejado Lanseros


Belartegi digitala III

12, igandea

Hirugarren irteera: bisitatzeko lekua lehen bileran finkatuko da. Edozein modutan ere, Arabako eta inguruko landaredian ipiniko dugu aurten arreta.

Artadiko likenak

19, igandea



Caranca herritik hurbil dagoen muino batean pasako dugu eguna. Ibilaldian zehar likenaren hainbat forma eta egitura behatuko dugu eta horren taxonomia eta ekologiaren hainbat ezaugarri ikasiko ditugu. Bertan bazkalduko dugu eta arratsaldean piskanaka etxeranzko bidaiari ekingo diogu, egunean zehar ikasitakoa birpasaz.

Oteoko trokartea

25, larunbata

Oteo eta Orbiso artean, Istora erreka Lokiz mendikatearen kare-arrian zulatu duen meharguneak osatutako bazterra da hau, ongi kontserbatua. Baso-inguruneen oparotasunak, artadi itxiek, isolamenduak eta hurbiltzeko zailtasunek faunarentzat leku garrantzitsua bihurtu dute zintzurra, bereziki hegazti harkaiztarrentzat.



Amilotx urdina (*Parus caeruleus*) / Irudigilea: Conrado Tejado Lanseros

UZTAILA

Salvada, baso eta harkaitz

10, igandea



Salvada mendilerroa Garrantzi Komunitarioko Lekua (GKL) da eta monumentu naturala. Proposamena Salvada mendilerroaren ingurune nabarmen eta tipikoetan zeharreko ibilaldia da, oinez. Bertako hainbat berezitasun ikusten saiatuko gara: harrapakari harkaiztarrak, mendiko lorea eta Iberiar Penintsularen banaketa murrizteko tximeleta batzuk.

Zuhaitz zaharrak eta intsektu saproxilikoak

16, larunbata



Zuhaitzi zaharreko basoak ezinbestekoak dira hainbat landare-, onddo-, ornodun eta ornogabeko espezieen bizi-iraupenerako. Azken horietakoa da entomofauna saproxilikoa, basoaren egoeraren adierazle gisa erabiltzen dena. Ekintza honen bidez zuhaitz zaharretan nor bizi den aztertuko dugu, intsektu saproxilikoei eta horiek zaintzeko arrazoiei kasu berezia eginez.

IRAILA

Belartegi digitala IV

25, igandea

Laugarren irteera: bisitatzeko lekua lehen bileran finkatuko da. Edozein modutan ere, Arabako eta inguruko landaredian ipiniko dugu aurten arreta.

URRIA

Mendi-hegaztiak Obarenes mendietan

1, larunbata



Mendi ertainetako (1.000-1.400 m) baso-inguruneetako eta sastrakadietako hegaztiak behatzeko irteera. Oinezko ibilaldia, zailtasun ertainekoa. Burgosko iparraldean kokatuta dauden Obarenes mendiak Kantabriar mendikatea euskal mendiekin lotzen dituzten mendilerroetariko bat dira: ondorioz, habitaten arteko konektibitateari eta mendiko espezieei begira eginkizuna nabarmena dute. Ekintza hau “Hegaztien eguna”ren markoan burutuko da.

Aretxabaletan habi-kutzak garbitzea

9, igandea

Ekintza bati buruzko argibide zehatzak eskuratzeko eta izena emateko (gutxi gorabehera hilabete bat lehenagotik):

- webgunean sartu (www.ian-ani.org) (ikus *Hurrengo ekintzak* hasiera-orrian edo *Ekintzak* atala; izena emateko orria ekintza bakoitzaren deskribapenaren bukaeran dago)
- 945 246606 telefonora deitu edo
- gure egoitzara jo (UNED eraikina, Pedro Asua, 2-3.a; bisitarietzako ordutegia: ostiraleko 19:00etatik 21:00etara, jai-egunetan, -zubietan eta -bezperetan izan ezik).

Egitarauaren edukiak eta datak aldatu ahal izango dira; edozein modutan ere, aldaketok webgunean garaiz jakinaraziko dira. Ekintzak oro har gaztelaniaz burutuko dira. Guri idazteko, erabil ezazu webgunearen *Harremana* atalean dagoen datu-orria.



Irudigilea: **Conrado Tejado Lanseros**, 1988tik ANIren bazkide ikertzailea. Herpetologia arloko ikerkuntza naturazko irudigintzarekin uztartzen du. Prestakuntza: Arte Ederretako lizentziatura (Kontserbazioa – Zaharberritzea).

Laguntzaile:



*Beharrezkoa ez bada, EZ inprimatu mesedez.
Institutuko web-gunean inprimatzeko egokia den bertsio zuri-beltz laburtua duzu eskueran.*